


Euskararen superheroiak



TXIKITTO

2014ko urtarrila

141



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri
eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- Maisu batek ikasle
bati:

- Zelan esaten da
"puerta" euskaraz?
- Atea
- Eta "puerto"?
- Ateo

Maite Lopez

- Amaaaa! Amaaaa! Zer
gertatzen da hiltzen
direnekin?

- Zer gertatuko da ba!
Hauts bihurtzen direla.
- Ene, ama! Zenbat
hildako ote dagoen nire
ohe azpian!!

June Arosa

- Zer esaten dio
azukreak kafeari?
- Zurekin urtu egiten
naiz, beltzaran.

Malen Salazar

Ume batek amari:

- Ama, ama, zein
egunetan jaio nintzen?
- Urriak 14
- Ala! Nire urtebetetze
egunaren berdina da-eta!

Mainer Diez

- Amaaaa! Amaaaa!
Eskolan "despistatua"
deitzen didate!!

- Lasai, ume, baina hau
ez da zure etxea.

Paula Taboada

Bi moja motorrean doaz
eta inork pasatzea
lortzen ez duen
bihurgune arriskutsua
garbi-garbi zast!
pasatzen dute. Beste
aldean Ertzainak daude
eta esan diete mojei:

- Nola lortu duzue kurba
hori pasatzea?
- Jesus gurekin
dagoelako.
- Beno ba, orduan multa
motorrean hiru
joateagatik.

Garoa

Doktoreak dardarazioa
duen gaixoari:

- Asko edaten duzu ala?
- Bai zera! Erdia erori
egiten zait-eta!

June Arevalo





San Andres ikastetxeko 6. mailako ikasleok hiruhilekoa ondo amaitzeko, azken egunean taloak egin genituen. Musika entzunez eta talogileen trebeziari esker, goiz ederra igaro genuen. Bestalde, 1. hiruhilekoan animalien gaia landu dugu eta beste ekintza batzuen artean, uso mezulariak ekarri genituen gelara, mezuak idatzi eta askatu ondoren, jakin izan genuen euren etxera, Donostiara, itzuli zirela.



Urkizuko 3. zikloko ikasleek "Maitagarri Amandrea" pelikula ikusi zuten Coliseo antzokian urtarrilaren 9an. 1. Mailakoek igeriketa ikastaroan izan dira eta 6. mailakoek Itzio ikastetxea bisitatu dute. Otsailaren 6an, Gaizka Garitano Eibar Futbol taldeko entrenatzaileak 3. zikloko ikasleak bisitatuko ditu.

Arrateko Andra Mari ikastetxeko LHko ikasleek Liburuen Altxorraren saioa izan zuten urtarrilaren hasieran, eta 2., 4. eta 6. mailetako ikasleek Kontsumobideko tailerrak izan zituzten. 6. mailakoak Itzio ikastetxea bisitatzeko izan ziren. Urtarrilaren 23an 5. mailakoek Odol emaileen tailerra izan zuten eta 24an, 3. ziklokoak, San Andres ikastetxeko ikasleek prestatutako antzerkia ikustera joan ziren. Hurrengo jai eta ospakizunak ere prestatzen hasi gara. Laster izango ditugu Santa Ageda eta Aratosteak. Aurten "gai libre" izango dugu mozorroetarako.



Juan Antonio Mogel ikastolakoak E-Twinning proiektuan sartuta gaude; Europako proiektu honek Europako eskolekin harremanetan egoteko aukera eskaintzen digu. Atari hau ezinhobea da Europako ikasle eta irakasleak elkarlanean aritzeko, elkarrekin ikasteko eta gure lanak partekatuz ikasketa prozesua hobetzeko. Guzti hori ingelesez, Internet eta IKTen baliabideak erabiliz lortuko dugu. Argazkian beste herrialdeetatik bidalitako gabon-txartelekin egindako erakusketa.

Aurki itzazu zenbaki konbinazioak

6	5	3	2	1
3	7	4	7	8
5	2	5	9	6
7	4	10	3	9
8	2	3	6	1
7	4	8	1	3
2	1	5	9	7
6	7	4	8	5
3	9	6	10	2
5	1	7	4	6

1-9-7

6-1

10-3

6-1-8

9-9

10-4


Gaizka M.

Juraki O.

Jacía A.

Danel M.

Kerman J



- 1- Erleak egiten duten janaria.
- 2- Udan egunero dagoena zerrua.
- 3- Bizi garen antzerkia erkidogoa.
- 4- Zure amaren ama.
- 5- Gekien hitz egiten den hizkuntza.
- 6- Frantziar jolasteko jostailua.

Xuban

GURUTZEGRAMA

Loto izenak bere laburdurekin

D.B.H

Europar batasuna

E.B.

Euskal Sautaritzu

E.E.B.B

Lehen Hezkuntza

E.J.

Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza

L.H.

Haur Hezkuntza

H.H

Estatu Batuak

LOVE Iglesias

Amatxo, aitatxo, zuek ere e

Zenbat aldiz entzun diezue etxean aitatxo, amatxo, amama, aitxixari euskeraz egin behar duzuela? Eta ondo esanda gainera, baina euskeraz jardutea zuon, umeon ardura den moduan, gurasoek, helduek ere gauza bera egin beharko lukete. Entzungo zenuten ondorengo esaldi hauxe: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik". Egia borobila. Euskera

galtzerik nahi ez badugu, erabili egin behar dugu.

Euskera ikastea ondo dago, zalan-tzarik gabe, baina zer da hizkuntza bat gero erabiltzen ez bada? Gaur egun geroz eta aukera gehiago dugu, bai euskera ikasteko bai erabiltzeko. Gerta liteke gure inguruan euskaldunik ez izatea, eta orduan zailagoa da euskeraz berba egitea. Ba egoera horri aurre egiteko jarri zuen martxan orain dela hamabi bat urte ...eta



egin euskaraz!

kitto! Euskara Elkarteak BERBETAN mintzapraktika programa.

Astean behin ordubete

Oso erreza da. Euskera ikasten ari direnak euskeraz ondo dakitenekin elkartzen ditugu, taldeetan, eta astean behin bakarrik! Ordubetez bakarrik! berba egiteko. Hori bezain erreza. Astean behin eta ordubete! Zer da hori? Oso denbora gutxi eskatzen du eta euskara ikasten ari direnei asko laguntzen die.

Gurasoentzako ere bada talderik, ez pentsatu!

Etxean euskaldunak bazarete, animatu eta parte hartu, euskera ikasleei laguntzeko. Eta euskera ikasten ari bazarete edo euskeraz berba egiteko maila hobetu nahi baduzue, eman izena talderen batean eta jardun euskeraz. Bakoitzak nahi duen egun, ordu eta lekuan eta doan. Txikitto!-rekin batera dohakizue informazio guztia. Ia denon artean bultzada ematen diogun euskerari!



Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu. Baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zertara jolasten dozu/zenduan lagunekin?

ENEKO IGLESIAS, 8 URTE

Foballian, poliziak eta lapurrak, harrapaketetan, ezkutaketan... jolasten dot. Danen artian gehixen gustatzen jatana jokua poliziak eta lapurrena da.

NICOLAS ALVAREZ, 9 URTE


Sokara, saskibaloira eta foballera; baiña gehixen gustatzen jatana saskibaloia da. Eskolako gimnasioan jolasteko ohiturria dakagu eta saskibaloian oso ondo moldatzen naiz.


NURIA CORREA, 42 URTE

Umetan goma-saltuan, sokasaltuan, txorro-morruan, foballian... jolasten genduan. Gehixen gustatzen jatana foballa zan, nere aittari be asko gustatzen jakon eta berangandik jaso neban afiziñua.

GONZALO ALVAREZ, 50 URTE

Foballian gehixen bat. Mutillen artian gehixen bat foballa zan nagusiña, baina 'txapak' be asko gogoratzen dittut. Guk egindakuak, foball taldien edo txirrindularitza taldien personajiekin geuk egindakuak.





“MUGIKORRA NAHI DUT!” ENTZUTEN HASTEN GARENEAN...

Mugikorra ez da telefono soila, komunikazio, sozializazio eta entretenimendurako tresna eraginkorra da. Umeak geroz eta lehenago hasten dira mugikorra eskatzen.

Izan ere, ez da kasualitatea telefonia enpresek etxeko txikiengan begiak ipini izana. Lehendabiziko helburu bilakatu dira nerabeak eta eurontzat propio sortutako produktuak sortu dituzte, deigarriak eta aplikazio erakargarriak jositak.

Datuei begiratzea besterik ez dago; 6 eta 11 urte bitartekoen artean %50k badute mugikorra eta 14 urtetik aurrera %80a igotzen da portzentajea. Kezkagarriena lehenengo mugikorra izateko adina, “mobilmania”, gero eta gehiago jaisten doala da. Honen islada Disney edo Imaginairum moduko etxeek umeei zuzenduta kaleratu dituzten telefono mugikorrek dira.

Bestalde, ez da arraroa ume batek bere inguruko denek mugikorra dutela ikustean berak ere nahi izatea. Handitzen doan heinean, hitz egiteko balio izateaz gain, argazkiak atera, interneten nabigatu, mezuak bidali edota musika entzuteko ere balio dutela ikusiko dute eta mugikorren erakargarritasuna handitu egiten da.

Edozein kasutan, gurasook, gai honetan beste edozein gaiekin bezala, seme-alaben laguntxoek badutela modu argudioetan edo moda kontuetan ez ginateteke jausi behar. Mugikorra benetan behar duela eta erabilpen egokia emango diola pentsatzen dugunean erosi behar diegu mugikorra. Abantailak eta desabantailak ondo baloratuz erabakia hartu baino lehen.

Noiz eta nola?

Adituek ez dute gomendatzen 12 urte baino gutxiagoko umeei mugikorrik erostea.

14 eta 16 urte bitartean kokatzen dute une egokia. Izan ere orduan sartzen dira gaztetxoak, maila ebolutiboan, bizitzako gizarteratze etapa nagusian.

11 eta 13 urte bitartean, mugikorra zentzuz erabiltzeko irizpide garbirik ez dute eta telefono propioa izan dezaten ekiditzea gomendatzen dute. Tarteka, etxeko mugikorren bat erabiltzen laga diezaiekegu, beti ere heldu baten laguntzaz edo ardurapean.

13 urtetik aurrera, mugikorra euron esku lagatzea erabakiko babiliz, oso komenigarria da erabilpenak adostea: ordutegia, uneak, telefono zenbakiak, jokoak,... Era berean gastua ere kontrolatuz.

16 urtetik aurrera mugikorra propioa izateko prest egon daitezke baina orduan ere erabilpen egokia ematen zaiola zaindu behar da. Kontsumoa mugatzea eta fakturaren portzentaje bat euron kargura lagatzea eragingarria izan daiteke.

Bestalde sare sozialetan partekatzen duten informazioa edota edukien gaineko arriskuei buruz hitz egitea komeni da, gaur egun gero eta gehiago ematen baita era horretako jazarpena.





TXERRITXO AURREZTAILEA

Berriz ere birziklapena erabiliz, eta oso modu errazean, eskulan polita egiteko aukera duzue. Aurrezten lagunduko dizuen txerritxoa.

OSAGAIK:

- Plastikozko botila tapa eta guzti
- Edozein koloretako kartulina
- Marrazkiak dituen edozein paper zati
- Begi mugikorak
- Zilindro formako bisuteria-aleak
- Itsasgarria
- Artaziak



PAUSOAK:

- 1.- Kartulinan laukizuzen bat moztu, horrekin botila inguratzeko.
- 2.- Bi triangelu moztu kartulinarekin, eta beste bi txikiagoak marrazkidun paperarekin, kartulinaren barrualdean pegatzeko.
- 3.- Itsatsi belarriak botilan.
- 4.- Begi mugikorak eta txerriaren oinak izango diren lau aleak itsatsi.
- 5.- Zuloa egin botilaren goiko aldean, eta horrela txerritxoa itzulapiko bihurtuko da!



etxeko SUKALDARIA

PASTATXITXAK

Errezeta hau umeek egin dezaketen errezenetakoa da eta ziur egon asko gustatuko zaiela! Eurak bakarrik edo edozein saltsarekin ere goxo-goxoak egongo dira. Errezeta hau egiteko beharko duzuen gauza bakarra pasta eta saltxitxak dira.



OSAGIAK

- ✓ Saltxitxak
- ✓ Espagetiak

- ✓ Ura
- ✓ Gatz apur bat

Pausoak:

- 1.- Moztu saltxitxak zatietan.
- 2.- Egosi gabeko espagetiekin saltxitxa zatiak zeharkatu.
- 3.- Ura irakiten jarri eta egosi dena bertan.
- 4.- Ura kendu eta zerbitzatu.



ARIES

Datozen egunotan ezarriko mina izateko arriskua duzu. Bufanda bat jartzeak ez dizu txarrik egingo. Bestetik 3 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea gorria izango da.

TAURUS

Gabonetan hainbeste jan eta gero, ez zara asetu? Horrenbeste litxarrerria jan beharrean, hobe zenuke etxeko porru-patata goxoak jango bazenitu. Zure sabelak eskertuko du.

GEMINIS

Hainbeste denboran itxaroten eta gero, iritsi zaizu hainbeste desio zenuena. Pazientzia izatea garrantzitsua da, baina baita lana egin eta kemena izatea ere. Zorionak!

CANCER

Laguntxoak zaintzeko dira eta ez iraintzeko. Besteek egiten dutena bost axola niri; zu zaren moduan izaten jarraitu, eta aurrera begira zure alde etorriko zaizu jarrera hori.

LEO

Osasunez bikain ibiliko zara datozen aste eta hilabeteetan, hori da zortea! Bestetik, 7 zenbakiak zortea ekarriko dizu eta zure kolorea berdea izango da.

VIRGO

Eskolan fin-fin zabilza eta etxeokak pozik dituzu. Lagunekin ere primeran zabilza eta osasunez indartsu zaude. Datozen asteotan ere horrela jarraituko duzu.

LIBRA

Noiz hasiko zara kirol pixkat egiten? Bada ordua, ez? Telebista edo ordenagailu aurrean egoteak ipurdia biribilduko dizu. Mugitu zaitez!

SCORPIUS

Kurtsua hasi zenuela hilabete batzuk pasa dira, eta konturatzerako hemen daude Aste Santuko oporrak! Animo, hilabete batzuk besterik ez dira-eta. Gainera, ezustekoa jasoko duzu opor horietan!

SAGITARIUS

Erraz kikiltzen zaren horietakoa zara, baina zure ausardia erakutsiko duzu laster, eta besteak harrিতa utziko dituzu. Heroi baten antzera sentituko zara. Baina oinak beti lurtean, entzun?

CAPRICORNIUS

Datozen egunotan ezingo duzu geldirik egon eta dantzatzeko gogoia izango duzu: arin-arina, funky-a, rap-a, tangoa... berdin zaizu zer, gorputza mugitzea izango da kontua. Ez zaitez moztu!

ACUARIUS

Otsaila hilabete polita izango da Acuarius-entzat. 6 zenbakiak zortea ekarriko dizue, baita kolore urdinak ere, eta ligatzeko aukera izango duzue. Hala ere, kontuz etxeko lanekin, ez zaitezte erlaxatu.

PISCIS

Besteak iritzi ezberdina badauka ere, errespetua da garrantzitsuen. Ulertu behar duzu denok ez dugula berdin pentsatzen. Eta gogoratu, altuago berba egiteak ez duela arrazoia ematen.



urene.wordpress.com

Txiribitak begiratzen izeneko blog honetan gauza mordoa aurkituko dituzue. Beste gauza askoren artean umeekin egindako errezetak, abestiak, liburu interesgarrietara loturak, online programak eta abar luze bat. Horrez gainera, telesailak eta pelikulak euskaraz jaisteko aukera ere izango duzue.

egingodugu.blogspot.com

Hemen umeei zuzendutako tailerrak, errezetak, ikastaroak, jolasak eta abar aurkituko duzue. Bideoz lagunduta datoz eta horrela askoz ere errazagoa egingo zaizue. Horrez gainera, puzzleak sortzeko proposamen bat ere egiten zaizue. Egingo dugu?






SATURNA

Zoriontsu bizi zen katu baten historia da hau. Saturna zuen izena. Egun batean erabat aldatu zen bere bizimodua. Handik aurrera ez zaio abentura eta arriskurik faltako. Behin telebistan ere azaldu zen.



MIKELA ETA ARTILEZKO BOLAK

Mikelak oso atsegin du bere ingurumaria begiratzea. Zelaian tripaz gora etzan, eta luzaroan egoten da zerura begira. Txoriek, tximeletek eta euliek hegan nola egiten duten ikusten ari da, eta nolakoak diren hodeien aldaketak...



URTXINTXAREN ARAZO LARRIA

Inork ez zekien zer gertatzen zitzaion, baina urtxintxaren aurpegia ikusirik, gauza txarren bat izango zela pentsatzen zuten agurtzen zuten guztiek. Aurpegi iluna jarririk, ahots bakanak esaten zituen eta aurrerantz joaten zen norabide finko gabe.



SPACE SCOUT, ERROBOTEN ERREGEA

Abiadura handiko ibilgailuak, etxe orratzak eta errobot jatorren lasterketa: planeta hau eta Lur planeta antzekoak dira! Baina Kipek zera ikusi du: errobotek bertan geratu nahi dute betiko...



AMODIOAREN GAZI-GOZOAK

XX. mendearen hasieran lanerako saldu zuten Miren neskatoa. Gezurra badirudi ere, horrelako gauzak egiten ziren gure herrian bertan. Gora-behera handiko bizimodua izan zuen Mirenek baserrian beti zerbitzari, beti lanean. Maitasunez beteriko urte samurrak ere ezagutu zituen, urte luzeetan gartzela izandako baserria paradisu bihurtu zitzaionean.



MAITAGARRIA ETA DESIOA

Hona hemen maitagarri bati lagundu zion neskato baten istorioa; maitagarriak, esker onez, dohain bat eman zion: bere edozein desio beteko zuela. Hitza eman zion: maitagarri hitza. Neskato horrek bere opariaz gozatzeko behar izan zuen denbora luzeaz arituko da ipuina, nola emakumetu eta zahartu zen aukera liluragarri harekin.



ATLANTE ETA URREZKO SAGARRAK

D

uela urte asko Greziako errege-erreginak haurtxo baten zain zeuden. Haurra iritsi zenean eta mutikoa barik neskatoa zela jakin zuenean, erregeak umea basora eraman eta bertan uzteko agindu eman zuen. Hartz eme batek aurkitu eta hazi zuen neskatoa. Nagusitu zenean basatia zen goitik behera: hartzaren esnea edanda ikaragarri indartu zen eta antxitxiketan gazelaren pare egiten zuen.

Behin batean ehiztari batzuek mendian harrapatu eta gizakien artera ekarri zuten berriro neska basatia. Ehiztariak Atlante izena jarri zioten. Inork uste baino azkarrago ikasi zuen geziak jaurtitzeko eta ehizan. Gizon askok egin zion ezkontzeko proposamena, baina Atlantek guztiei uko. Berak askatasuna maite zuen.

-“ Antxitxiketan ni baino gehiago denarekin ezkonduko naiz”, esan zuen neskak, bazekielako edonor atzean uzteko gai zela.

Gertatu ere horrela gertatzen zen: Atlantek irabazten zuen beti.

Ehiztarien artean bat Hipolito zen, gizon ausarta. Atlanterekin lehiatzea erabaki zuen. Baina lehenago aholkua eskatu zion Afroditari, hau da, maitasunaren jainkosari.

-“ Jarri urrezko hiru sagar bidean eta irabaztea lortuko duzu”, esan zion Afroditik.

Hasi ziren korrika eta Atlante aurretik. Lehenengo sagarra lurrean agertu eta, ttak, Atlante gelditu. Hipolitok aurea hartu. Basoan hazitako neska berriro abiatu zen eta Hipolito atzean utzi zuen. Baina ustekabean bigarren sagarra agertu zen bidean. Atlante oraingoan ere gelditu. Hipolito aurrera. Hirugarrenean beste horrenbeste gertatu zen: Atlante berriro abiatu, aurea hartu, urrezko sagarra aurkitu, bertan gelditu eta azkenean Hipolitok irabazi zuen lasterketa.

Atlantek hitza bete zuen eta, gogo barik baina, Hipolitorekin ezkondu zen. Lasai, ez da amaitu.

Hipolitori, ahaztu egin zitzaion Afroditari eskerrak ematea eta Afroditik zigortu egin zuen:

Hipolito hartz bihurtu zuen.

Horrela bai. Atlante pozik. Ordutik aurrera Atlante eta Hipolito zoriontsu bizi izan ziren... eta dena... Afroditari esker, maitasunaren jainkosari esker.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

GAU

orbeialdeko
Arabako lurretan
gaueko jaunari
Gau deitzen
zioten. Oso
arriskutsutzat



G

jotzen zuten gauean

etxetik kanpo ibiltzea, Gauren garaia baitzen hura. Gazte batzuk menditik zihoazen gau batean, argi distiratsu bat ikusi zuen batek, eta izugarrizko ikara sartu zitzaion. Besteek barre egin zioten, ez zeukala zertan beldurrik izan esanez. Orduan, gazteak, erronka bota zien: ea nor ausartzen zen argiarenganaino joaten.


Batek, harro-harro, erronkari heldu zion, eta argia zegoen lekuan aurkitzen zen pinutik baietz adar bat ekarri, erantzun zuen.

Joan zen mutila argia zegoen lekura, eta pinuaren adar bat apurtzen ari zela, argia beregana hurbiltzen hasi zen. Orduan konturatu zen, argi hura izugarrizko zakur baten begien distira zela. Zakurrak esan zion Gau ez desafiatzeko; gaua espirituen eta hildakoen erreinua zela-eta. Gaztea, beldurraren beldurrez besteengana joan zen, pinu adarra eman zien, eta hitzik esan

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.

MEREZI DU...

gabe etxeratu zen. Etxera iristean oheratu zen, eta ez zen gehiago esnatu.



zu margolari!